

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2010eko azaroaren 12a. VIII. urtea. 2.122. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Makrobiotika saioarekin hasiko da Kultur eta Kirol Astea

Astelehenean hasiko da Anoetan, ekitaldi betetako astea; bideo emanaldiak, hitzaldiak eta txapelketa ugari izango dira **o3**

Mugimendu feministaren historiari errepassoa

Tolosan bihar Miren Aranguren eta Edurne Epeldek «feminismoa Euskal Herri mailan kokatuz» bere eragina aztertuko dute **o2**

Bukatu dira kulturari eskainitako egunak Gaztelun

Haurrentzako ipuin kontalariaren emanaldia eta merienda izan dira azken bi ekitaldiak **o6**



Merienda egin zuten atzo. E. EZEIZA



E. MAZ

→ **San Martineguna ospatuz.** San Martin eguna dela eta ekitaldi ugari izan dira Amezketan, Amasa eta Alkizan. Azken honetan bi ekitaldi izan ziren, irudian ikusitako den 'Pantxika, txinparta ederra zalaparta' pailazoaren emanaldia eta 'Piano bat bertsoetan' ikuskizuna. Amasan San Martin jaietan murgilduta jarraitzen dute. **o4**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maité

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Diodo laserra Behin betiko depilazioa

Salneurriak eskatu

Bonu bereziak
gizonezko zein emakumezkoentzat
eta
tarifa bereziak gazteentzat



→ **Laburrak**

Argindar mozketak egingo dituzte hilaren 16an

GIZARTEA › Tolargitik adierazi dutenez, datorren asteartean, hilaren 16an, argindar mozketak egingo dituzte. Hain zuzen ere, San Frantzisko kaleko 17, 19, 21, 23, 35 eta 37 zenbakietan, Emeterio Arreseko 2 eta 5ean eta Samaniego kaleko 1ean egingo dituzte mozketak 15:00etatik 16:10era.

Uraren garrantziaz antzerkia bihar, Topic-en

KULTURA › Buenamandarina antzerki taldeak *Rebellion en el baño* antzezlan aurkeztuko du bihar, Topic-en, 18:00etan hasita. Lan honen bidez, urak duen garrantziaz eta ballabide naturalak zaintzeaz gogoeta egitea bultzatu nahi dute. Emanaldi honetara joateko sarrera 4 euro ordaindu beharko dute haurrek, eta helduek, berriz, 7 euro.

Harresiak Apurtuz izango da bihar Kultur Etxean

GIZARTEA › Harresiak Apurtuz elkarteak gizarte eragileei zuzenduriko tailerra eskainiko du bihar, Kultur Etxean, 09:30etik 19:30era. Etorikinekin lan egiten dute elkarteekin informazioa trukatzeko dute, horien eraginkortasun hobetzeko helburuz.

Arimaz orkestraren kontzertua Topic-en

KULTURA › Arimaz Kamera orkestrak kontzertua emango du Topic-en etzi, igandean, 12:30ean hasita. Orkestrak azaldu duenez, Tolosako Andre Mari elizako organoa berritzen laguntzeko antolatuta dute emanaldia.



Miren Aranguren eta Edurne Epeldek emango dute biharko tailerra. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Euskal Herriko mugimendu feministaren historia aztertuko dute bihar

Miren Aranguren eta Edurne Epeldek emango dute hitzaldia, Kultur Etxean, 16:00etatik aurrera

Iñigo Terradillos Tolosa

Azaroaren 25a izango da Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna, eta Tolosako Udaleko Berdintasun sailak hainbat ekitaldi antolatuta ditu egun horren harira. Lehena bihar izango da, Kultur Etxean, 16:00etatik aurrera. Bertan, Bilgune Feministara eta Emagin (Euskal Herriko Emakumeen Dokumentazio Zen-

troa) elkarteko Miren Aranguren eta Edurne Epelde Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Historiaz ariko dira. Feminismoaren historia aztertzea eta egungo egoerari eta erronkei erreparatzea izango du helburu. Jabekuntza Eskolaren barruko tailer honen.

Euskal Herriko mugimendu feministari buruzko informazioa lantzen hainbat urte igaro dituzte Aranguren eta Epeldek. Josebe Iturrioz Udaleko berdintasun teknikariak azaltzen duen bezala, «oso gertutik ezagutzen dute mugimendu feministaren historia eta oso lan polita egiten dute hori azaltzen». «Feminismoa Euskal Herri mailan kokatzen dute, eta

gure gertuko historiari errebasoa ere ematen diote, izan ere, askotan gertuen duguna ez dugu ezagutzen», azaltzen du Iturriozek. Beraz, 80. eta 90. hamarkadari erreparatuko diote bereziki, eta era berean, egun feminismoan dauden erronkak ere azalduko dituzte.

Ikastaroa bihar izango da, baina ziurrenik bigarren atal bat ere izango du. Josebe Iturriozek azaltzen duen bezala, «larunbatean parte hartzen dutenen artean adostuko dute bigarren zatia noiz egin». Parte hartu nahi dutenek bihar arratsaldean Kultur Etxera azaldu besterik ez dute egin beharko.

• tolosa@hitza.info

Elkarretaratzera deitu dute bihar goizean, sahararren egoera salatzeko

Trianguloa plazan izango da 11:30ean; herritar guztiak animatu dituzte bertan parte hartzera

I. Terradillos Tolosa

Tolosaldea Sahararekin elkarretaratzea bihar, Trianguloa plazan 11:30ean, egingo duen elkarretaratzean parte hartzera animatzen ditu herritarak. Mendebaldeko Saharan azken egunetan gertaturikoa salatu eta sahararrei elkartasuna adieraziko diete ekimen honen bidez.

Elkartetik azaltzen dutenez, Aaiungo kanpoaldean osatu zuten Agdaim Izik kanpalekua «duintasuna eta adorea ezaugarri dituen herri baten enegarren ekintza izan da». «Sahararrak bakesuak direla utzi dute agerian, eta erantzuna ankerra izan da: haurrak, emakumeak eta adineko jendea nagusi zen kanpalekua basakeriaz suntsitu dute indar armatu marokoa, gerraren bidea sustatu nahi izan dute zibilen kontrako sarraskia eraginez». Horrez gain, Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko negoziazioak zapuztea zutela helburu diote.

Horregatik guztiatik deitu dutela biharko elkarretaratzera gehitzen dute, «nahikoa dela esateko, herri sahararri askatasunaren bidean inoiz ahaztuko ez dugula gogorazteko, Nazioartearen hipokresia salatzen eta behingoz gatazka honetan duen erantzukizunari hel diezaion eskatzeko».

• tolosa@hitza.info

EUSKAL HERRIKO PLAZA KO HAINBAT EKOKIZLEREN PRODUKTUEKIN OSATUTAKO **SASKIAK**

36€ | **55€**

Erosi berriaren GABONETAKO ESKAINTZAN EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte!

943-30 43 45 | harpideta@berria.info | *Bidalaketa gastuak doan*

Osatu zure saskia!

berria

Musika Eskolako ikasleen ikasturteko lehen kontzertua

Donostiako Kontserbatorioko klarinete taldekoekin ariko dira gaur, 18:00etatik aurrera

Erredakzioa Tolosa

Hasi berri da ikasturtea Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolako ikasleentzat, eta dagoeneko jendaurrean lehen urratsak ematera

doaz. Hain zuzen ere, gaur emango dute lehenengo kontzertua. Musika Eskolako areto nagusian izango da emanaldia, 18:00etan hasita, eta eurekin batera, gonbidatu bereziak izango dituzte, Donostiako Erdi Mailako Kontserbatorioko klarinete taldeko kideak, hain zuzen ere. Oraingo honetan bezala, kurtsoan zehar hainbat Musika Eskolarekin elkartruke gehiago egitea aurreikusten dute.

• tolosa@hitza.info

Astelehenetik aurrera ekitaldiz betetako Kultur eta Kirol Astea

Aste osoan zehar egunero izango da ekitaldiren bat. Kiroldegiko sarreran erakusketa egongo da

Eneritz Maiz Anoeta

Astelehenetik aurrera anoetarrrak Kultur eta Kirol Astean murgilduko dira. Aste osoan zehar, egunero ekitaldiren bat izango dute parte hartu ahal izateko.

Astelehena Makrobiotika saioarekin hasiko dute. Asteartean 19:00etan, udal areto nagusian *Hondakinen atez ateko bilketa* hitzaldia izango da. Hizlaria, Usurbilgo Udaleko zinegotzia den Imanol Azpiroz izango da eta azalpenak emateaz gain, irudien proiektzioa ere izango da.

Asteazkenean, 19:00etan, Udal areto nagusian, urriaren 10ean

ospatu zen Euskal Jaiaren bideo proiektzioa eskainiko dute. Ondoren, *Sagarraren denbora* dokumentalaren proiektzioa ikusteko aukera izango da: «Kristiane Etxaluz xiberotarra eta Alfonso Etxegarai bizkaitarra ezohiko bikotea dira. Biak gaztetik lotuak Euskal Herriaren askapenerako borrokari, beren maitasuna sorterritik 7000 kilometrorra bizitzera kondenatuta daude».

Hurrengo egunetan, Loatzko Musika Eskolako lokalaren inaurgurazioa, egun osoko Xexili festa, xake eta pilota txapelketak edota herri krosa izango dira.

Erakusketa eta proiektzioa

Aste osoan zehar Kiroldegiko sarreran, udal egutegia osatzeko lehiaketara aurkeztu diren argazkien erakusketa egongo da. Era berean, argazki zaharrek inosutatuko bideo proiektzioa eskainiko dute.



Iazko Kultur eta Kirol Astearen haurrei zuzendutako emanaldia. HITZA

↓ Kultur eta Kirol Astea

AZAROAK 15, ASTELEHENA

■ **19:00.** Makrobiotika saioa, Kuku Elkartean.

AZAROAK 16, ASTEARTEA

■ **19:00.** Udal areto nagusian hitzaldia: *Hondakinen atez ateko bilketa*. Hizlaria, Imanol Azpiroz. Irudien proiektzioa ere izango da.

AZAROAK 17, ASTEAZKENA

■ **19:00.** Udal areto nagusian, Anoetan urriaren 10ean ospatu

zen Euskal Jaiaren bideo proiektzioa.

■ **Ondoren.** *Sagarraren denbora* dokumentala proiektzioa.

AZAROAK 18, OSTEGUNA

■ **17:30.** Iturtxulon Loatzko Musika Eskolako lokal berriaren inaugurazioa izango da.

AZAROAK 19, OSTIRALA

■ **18:00.** Frontoian, Pilota Txapelketa LH1 eta LH6 maila bitarteko umeentzat.

AZAROAK 20, LARUNBATA

■ **Xexili festa.** Egun osoan zehar, Loatzko Musika Eskolako festa izango da: txistulariak, dultzaineroak, trikitalariak, musika tailerrak, dantza gunea, bazkaria, erromeria...

AZAROAK 21, IGANDEA

■ **10:30-13:30/15:00-17:00.** Xake Txapelketa.
■ **11:30.** Herri krosa plazatik. DBH3tik aurrerako gazte eta helduentzat.

Gaztelekurako hezitzaile bila

Deialdi hau elkarte edo enpresei zuzendua dago. Hilaren 18a da eskaintzak aurkezteko azken eguna

E. Maiz Villabona

Villabonako Udala aspaldian hasi zen 12 eta 17 urteko nerabeei zuzendua izango den eraikina berri eta nolakoa izan behar duen erabakitzen. Gazteekin elkarlanean aritu ostean, gero eta gertuago dago atek zabalduko dituen eguna.

Villabonako Udalak, urriaren 27an egindako osoko bilkuran, Villabonako nerabeentzako udal zerbitzua kontratatzeko baldintza administratiibo berezien eta baldintza teknikoaren agiria onartzea erabaki zuen.

Hilaren 18a da eskaintzak aurkezteko azken eguna. Deialdia, enpresa edo elkartei zuzendua dago. Heditzaile koordinatzaile bat eta beste bi hezitzaile behar dira zerbitzua aurrera eramateko. Eskaintza honetan interesa duenak enpresa edo elkarte batekin harremanetan jarri beharko du. Baldintza pleguak, www.villabona.net helbidean ikus daitezke.

«Ez da jolasteko lekua»

Gazte informatzailea den Beatriz Menaren arabera, «helduek ez dute ulertzen. Gazteak heztea du helburu eta herria ezagutaraztea. Ez da jolasteko leku bat izango». Zerbitzu finkoa izango du eta «adin tarte horretako gazteek kaleaz gain biltzeko eta hezteko leku bat izango dute» gaineratu du. Ikasturtean zehar, astelehenetan itxita egongo da. Astearte eta ostegunetan 17:00etatik 19:30etara egongo da zabalik eta asteazken eta ostiraletan, aldiz, 16:00etatik 19:30era. Asteburuetan berriz, 16:30etatik 20:30ak arte egongo da irekita.



Orain, obrak bukatuta barrua hornitzeko lanak egiten ari dira. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Artisau Jogurtak



Mahala



Zuri arrain

iturgintza & bainugelak

San Martin egun oparoa Amezketan, Amasa eta Alkizan

Batez ere haurrak izan ziren atzoko eguneko protagonistak; puzgarriak, pailazoak eta jokoak izan zituzten

dean *Pantxika*, *txinparta ederra zalaparta* pailazoan emanaldia izan zuten txokolatadaren aurretik. Iluntzean helduen txanda izan zen, eta *Piano bat bertsoan* ikuskizunarekin gozatu ahal izan zuten Kultur Etxean.

San Martin eguneko azken eki-

taldia Amasan izan ziren. Meza izan zuten lehenik eta gero herri kirolen txanda. Joseba Otaegi eta Jexux Mari aizkolarien eta Aimar Irigoien eta J.R. Iruretagoiena, *Izeta*, harri-jasotzaileak izan ziren herrian. Etxeberria eta Lazkano bertsolariak izan ziren saioa alaitzen trikitilarien laguntzarekin.

Jaietan buru-belarri

Amasan, hala ere, San Martin jaietan murgilduta daude eta gaurkoan ere izango dute zeregin: 17:30ean, Hipo eta Tomax pailazoan emanaldia izango da; ondoren, txokolate beroa banatuko dute; 20:00etan, XIX. Bakailao Lehiaketa egingo dute eta 23:30ean, dantzaldia izango da Laiotzaldearekin.

Erredakzioa

Atzoko tenperatura hotz samarrei aurre egiteko moduko ekitaldiak izan ziren Alkizan, Amezketan eta Amasan San Martin eguna ospatzeko.

Amezketan gainera, San Martin egunarekin batera, Umeen Eguna izan zuten eta ondorioz, urteroko mezaren eta bertsolari zein trikitilarien ondotik, umeen bazkaria izan zen jangelan. Gustura ibili ziren haurrak gora eta behera, baina are hobeto pasa zuten ondoren, puzgarrien eta meriendaren txanda iritsi zenean. Helduek beranduxeago bazkaldu zuten, Errekalden.

Alkizan ere etxeko txikienak izan zituzten gogoan eta arratsal-



Herri kirol saioa izan zen atzo, Amasan. E. MAIZ



Amezketan San Martin inguruan Laja eta Landakanda izan ziren giroa alaitzen. I. GARCIA



Lizardin egin zuten azkenean, mahai-ingurua. A. MAZ

«Egia osoaren» aldeko aldarria zabaldu dute

‘Tolosa.hitza.info’ webgunean mahai-inguruaren laburpen zabala aurkitzen da, lau bideotan

Asier Imaz Tolosa

Udaletxeko bilkura aretoan ez zen posible izan, baina bai Lizardi Elkartearen. Bertan elkartu ziren herenegun Martxelo Otamendi, Joxean Agirre eta Martxelo Alvarez. Ahaztuak 1936-1977 elkarteak mahai-ingurua antolatu zuen *Memoria egin, justizia egin* lelopean, eta Lizardi Elkarte txiki gelditu zen.

Egunkariako zuzendari ohiak «oso larrizat» jo zuen «Jokin Biddarratzen debekua». Ahaztuak elkarteke Martxelo Alvarezk berri, eurak ere «zerbait pentsatzen» hasiak direla azaldu zuen.

Hainbat eredu, epaiketak eta egia osoa

Martxelo Otamendi tolosarrak Argentinara, Hegoafrikara eta Irlandara begiratu zuen, bertako gatazken ondorioz hitz egiteko. Bide juridikoan lanean jarraitu beharra aldarrikatu zuen, Argentinan militarrei berriki egin zaizkien epaiketak gogoratuz.

Martxelo Alvarezk bat egin zuen Otamendiren ikuspuntuarekin. «Torturatzailerak eta hiltzaileak» espetxeratzeaz hitz egin zuen frankismo garaiko biktimen aldeko elkarteke kideak.

Euskal Memoria Fundazioko kideak, Joxean Agirrek, «egia osoaren» aldarrikapena egin zuen Lizardin, «gure historia guk idatzi» behar dugula azpimarratuaz.

Mahai-inguruaren laburpen zabala *tolosa.hitza.info* webgunean aurkitzen da, lau bideotan banaturik.

Ezagutu gure produktuak **15 EGUNEZ DOAN**



hitza^{info}

berria^{info}

zu zara berria

euskarazko komunikabideak, elkarlanean, berrituta, mugimenduan

Eman ezazu izena azaroaren 16a baino lehen, honako bide hauek erabiliz: 943-30 43 45 • harpidetza@hitza.info edo kanpainaren webgunea

www.zuzaraberria.info

berriketan^{info}



Herriko gazteak eta Realeko jokalaririk ohiak, nor baino nor biharko apustuan

Futboleant eta herri kirolean neurtuko dituzte indarrak, 12:00etan hasita, Larrunarri frontoian

Imanol Garcia Amezketak

Amezketako Kultur Astearen baitan ekitaldi berezia antolatuko dute. Amezketako Ospelako gazteak eta Realeko jokalaririk ohiak bere indarrak eta abilezia neurtuko dituzte larunbatean, hilak 13, Larrunarri frontoian. Ospelako Asier Bernaras eta egun Amezketan bizi den Joseba Irazusta Realeko jokalaririk ohiak izan dira ekitaldia bultzatu dutenak. Gazte amezketarrek herriko jaietan herri kirol erakustaldia egin zuten eta horren ondoren Irazustak erroka bota zien. Eta Ospelakoek ezin ezetz esan.

Bi zati izango ditu apustuak. Alde batetik futbol partida jokatuko dute eta bestetik herri kiroleko hainbat probatan lehiatuko dira. Futboleant 12:00etan hasiko dira eta 13:00ak aldera herri kirolen saioari ekingo diete. Futboleant ariko diren amezketarrek hauek izango dira: Xabier Labaien, Imanol Labaien, Aitor Zurriarain, Jokin Agirre, Mikel Loidi, Iñaki Altuna, Alain Arandia, Xabier Artola eta Joseba Larreta. Realaren aldetik, besteak beste, Idiakez, Tayfun eta Kuyami ariko dira. Gorriz eta Gajate ere bertan izango dira entrenatzaile gisa.

Herri kirolei dagokionez, trontzan amezketarrek lau epai egingo dituzte eta Realekoek hiru, txingan bi plaza -frontoari bi joan-etorri- egingo dituzte, oskoletan 15 oskol bilduko dituzte, harri-jasotzen 15 jasoaldi emango dizkiote 75 kiloko harriari eta korrikan frontoari bost itzuli egingo dizkiote. Guztira bi saio izango dira eta bakoitzean bost proba burutuko dira. Amezketatik trontzan Xabier Otaegi eta Josu Lertxundi, txingan Unai Garmendia, oskolak biltzen Julen Goñi, harri-



Santi Bakero eta Javier Elola trontzan entrenatzen. Eskuinean, Asier Bernaras eta Joseba Irazusta, harriarekin probak egiten; biharko apustuan arerio izango dira. I. GARCIA



Javier Elola, Asier Bernaras, Joseba Irazusta, Santi Bakero eta Guillermo del Olmo eskultorea. I. GARCIA

jasotzen Asier Bernaras eta Aitor Lertxundi eta korrikan Mikel Loidi ariko dira. Realaren aldetik, besteak beste, Joseba Irazusta eta Jokin Andonegi harri-jasotzen ariko dira, Javier Elola tolosarra eta Santi Bakero trontzan, txingatan Michel Loinaz, korrikan Iñaki Zabala eta oskolak biltzen Kuyami.

Futboleant irabazten duenak puntu bat jasoko du eta herri kiroleant irabazten duenak beste puntu bat. Berdinketa gertatzen bada, soka-tiran erabakiko da garailea. Ustez, Realekoek irabazi beharko dute futboleant eta amezketarrek gailenduko dira herri ki-

roleant, baina Bernarasek zein Irazustak ez dute aurreikuspen hori hain garbi. Apustua bukatu ondoren, bazkaria egingo dute bi taldeetako partaideek. Bestalde, Bernarasek eta Irazustak Guillermo del Olmo eskultorearen launtza eskertu dute, berak egin baitu ekitaldiaren kartela, harri-jasotzen erabiliko duten harria eta apustuaren ondoren banatuko diren garaikurrak.

Gaurko eta igandeko ekitaldiak

Biharko apustuz gain, asteburu honetan ere beste hainbat ekitaldi izango dira Kultur Asteant.

Gaur bertan, gazta lehiaketari hasiera emango zaio eta gazta dastatzeko aukera izango da. Herri Zentroan izango da hitzordua 19:00etan. Alde batetik herriko sei artzainen gazten arteko lehiaketa hasiko da. Epaimahaiak gazta bakoitzaren erdia erabiliko du puntuazioa emateko. Gazten beste erdia igandera utziko da, egun horretan egingo den azokaren baitan herritarrek emango baitizkie puntuak.

Gazta lehiaketaz gain, produktu horren dastatze gidatua izango da ere, Joxerra Agiriano adituaren eskutik. Horren ondoren, 21:00etan, Larrunarri frontoian zahagi-ardoa antolatuko dute. Eguneko ekitaldiei amaiera emango die Keira musika talde adegarrak.

Esan bezala, igandean azoka egingo dute herriko plazan zein frontoian. 25 postu izango dira, ia denak herrikoak. Denetarik izango da bertan: abereak, baserriko traste zaharrak, egur-tailak, barazkiak... Kultur Astearen antolaketa lanetan aritzen den Iñaki Amundarainek azokan postua jartzeko dutenei eskerrak luzatu dizkie, «bere borondatez ekartzeko baituzte postua jartzeko dutena». Azoka dagoen bitartean, eta 13:00ak arte, herritarrek lehiaketa parte hartzen duten sei gazteko puntuak ematea izango dute. Epaimahaiak eta herritarrek emandako puntuen arteko batuketak erabakiko du zein izango den gazta irabazlea.

AHTren obrei alegazioak jartzeko deia luzatu du Elkarlanak

Gaur joango dira Donostiara, eta besteak beste, Tolosa-Hernialde zatiari jarriko dizkiote alegazioak

Erredakzioa

AHT Gelditu! Elkarlanak dei egingo du gaur 10:15etik 11:00etara Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzara (plaza de Pio XII, 6, Donostia) joatera Tolosa-Hernialde zatiaren AHTko obrei alegazioak sinatu eta entregatzeko. Andoain-Urnieta eta Urnieta-Hernani zatietan ere alegazioak jarriko dizkiote. Halere, hilaren 15 arteko epea dago alegazioak jartzeko.

Elkarlanak hiru zati horietan, «beste guztietan bezala, informazioa ezkatutaz izugarria egon dela» salatu du, «bai Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakundearen eta baita Tolosa eta Andoaingo udalen aldetik ere». Tolosaren kasuan «azkeneko datuak 2009ko otsailen jaso ziren», dio. «Nahiz eta jakin aldatetaz egon direla ondorengo zatien aldatetaz gatik (2009ko uztailean Proiektu Basiko berria), ez zuten informaziorik pasatzen». Urtebetera, Tolosa-Hernialde zatia lizitatzen ari zirela jakitean, «argi geratzen da Oinarriko Proiektuaz gain Eraikuntza Proiektua ere bazutela».

Hernialde eta Hernaniren kasuan, «udal hauetara ez da ia informaziorik iritsi nahiz eta behin eta berriz ETSra deika ibili eta orain, nahitaezko desjabetze prozesua iritsi denean eta obrak hasiteko oso denbora gutxi falta denean, bidali diete Eraikuntza Proiektua». Horrek, Proiektua behar bezala aztertzei aukera ez dietela ematen salatzen dute Elkarlanetik: «Ez dute argi uzten, baina, badirudi Tolosa-Hernialde zatiaren hiru etxe izango liratekeela botako direnak eta guztira 50 lurjabe, tartean lur publikoak, izango dira kaltetuak».



Lasert Promozioak
Azaroaren 1etik 15era
Anka osoa abonua 5 sesio:
1.250€
Besape abonua 5 sesio:
195€

SHUYANA
ESTETIKA: Eskolapioetako
Loratzejak 3, 1A. T. 943 675 489
KOSMETIKA:
Korreo 1. T. 943 671 468

Irudia Gaztelu



IPUINEKIN AGUR, KULTUR ASTEBURUARI

Atzo esan zioten agur Asteburu Kulturalari Gaztelun. Autobusez, ikastetxeetatik herrira iritsi zirenerako prest zuten merienda Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkartearen. Tripak ongi bete eta gero, Idoia Sanchez ipuin kontalariaren bisita jaso zuten. Gehienek ere ezagutzen zuten, ez baitzen herrira ipuinak kontatzera joaten zen lehendabiziko

aldia. Atzokoan, Afrikan bizi zen 5 urteko Bubu haurraren istorioa kontatu zien. Honenbestez, hiru egunetako ekitaldien ostean, Kultur Asteburuko antolatzaileak «gustura» geratu dira oro har, aurtengoarekin. Ekitaldien artean jende ugari bildu zuten igandean bigarren aldiz ospatutako azokak. Bertako produktua izan ziren erakusgai. E. ZEIZA

→ **Laburrak**

'Two lovers' filma ikusgai asteburu honetan

LEITZA ▶ Asteburu honetan, Leitzako zinema aretoan, James Gray zuzendariaren *Two lovers* filma ikusteko aukera izango da. Ohi bezala, lehendabiziko saioa gaur 22:30ean izango da, eta bigarrena berri, etzi, 19:30ean.

Arropa konponketa eta makillaje ikastaroa prest

IBARRA ▶ Kultur Etxean bi kultur lantegi berri antolatzea erabaki dute: arropa konponketena eta makillajekoa. Arropa konponketen kasuan, bi talde osatu dituzte eskolak, asteazken eta ostegunetan banatuz. Abendutik ekainera bitartekoa izango da ikastaroa. Bestetik, makillajekoa egongo da. Hau ostegunetan, izango da, izen-emateko epea astelehenean irekiko da, eta 30era arte luzatu.

Gaur, DVD emanaldia eta ikus-entzunezkoa

BERASTEGI ▶ Kultur Astean erabat murgilduta daude Berastegin. Hala, ekitaldiekin jarraituz, gaur 16:30ean haurrentzako DVD emanaldia izango da Eskolako Ganbaran. Iluntzean berri, 21:00etan, Eneko eta Miyukiren *Hego Amerika tandem* ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute. Hau ere Eskolako Ganbaran izango da. Gaurkoen ostean, asteburuan jarduerekin jarraituko dute.

Carlos Peñak Sella ibaia zeharkatuko du igerian, hamargarren aldiz

Bihar Arriondasetik abiatuko da 10:30ean, eta 19 kilometro egingo ditu; bere ibilbidean, 21. urteurrena du

Erredakzioa Tolosa

Carlos Peña igerilari tolosarrak beste desafio bat prestatu du larunbat honetarako. Arriondasetik abiatuko da, eta Sella ibaia zeharkatuko du igerian, Ribadesella (Asturias) hiriraino iritsi arte.

10:30ak aldera abiatuko da Peña, eta 19 kilometro egin beharko ditu igerian, ohi bezala, bizkarrez. Uraren temperatura baxuak eta hotzak zailduko dio lana.

Oraingo honetan ere Jesus Ramirez piraguista izango du lagun.

Erronka honek, urteurren batekin egiten du bat. Izan ere, 21 urte betetzen ditu igerilari, abenturazale eta ekintzaile gisa. Ekologiaren eta bakearen aldeko ekintzaile moduan deskribatzen du bere burua Peñak. Orain artean egin dituen erronkek beti izan dute atzean, elkartasun helburu bat. Era berean, bost kontinenteetako itsaso, ozeano eta ibaiak igerian zeharkatu dituen igerilari amateur bakarra da.

Eskoziako Ness lakua, Hego Ameriketako Titicaca eta Bosniako Neretva zeharkatu ditu besteak beste, 45 urteko tolosarrak. Aurtun, 50 kilometro neurtzen dituen Ricovayoko (Zamora) urtegia ere gurutzatu du.

Gutuna

Telebistaren auziaz

Telebista kate desberdinak ikusi ahal izateko Leitzan dauden zailtasunak direla-eta herritarren kezak geroz eta ugariagoak dira, bereziki azkenaldian, herriko pilotariak protagonista diren txapelketen igorpenak jasotzeko dagoen ezintasunagatik.

Honen aurrean Leitzako Udaleko Ezker Abertzaleko eta Eusko Alkartasunako zinegotziok eskaera irmoa egiten diogu ohar honen bidez Nafarroako Gobernuari, behingoz telebisten kateen saltsa hau bidera eta

konpon dezan; noski, euskaraz emititzen den telebista kate bakarenetakoa, ETB ere bere osotasunean eta bide egokietatik jasotzeko herritarrok dugun hizkuntz eskubidea berri aldarrikatzen dugu eta honi dago-kion eskaera ere bideratzen diogu Nafarroako Gobernuari, eskubide urraketa hau lehen bai lehen bertan behera utz dezan.

Euskara nafarron hizkuntza da.
■ **Leitzako Udaleko Ezker Abertzaleko eta Eusko Alkartasunako zinegotziak.** Leitza.

Urteurrena →

- I. URTEURRENA -

JOAQUIN AZKUE IRAZU

(2009ko azaroaren 10ean hil zen, 82 urte zituela)

- Golan bego -
Beti bihotzean izango zaitugu

Zure familiak

Urtebeteko meza datorren igandean, azaroak 14, 11:15ean ALEGIAKO SAN JOAN parrokian izango da. Joango zaretenei eskerrikasko aldeaz aurretik.

Alegian, 2010eko azaroaren 12an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, aior honetan lider garenaz, aukera ekonomiko gutxieta egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com